

txintxarri



Lurra, esna zaitez!

Santa Ageda bezperan oles egin dute zenbait ikasle, irakasle eta eragilek, udalerriko kale eta eraikinetan barrena / 9

TXINTXARRI

Lehen sinadurak bildu dituzte

Pentsiodunen mugimenduaren Herri Ekimen Legegilea babesteko atxikimendu jasoketa abiatu du herritar talde batek / 2

Saharari babesa adierazteko bi deialdi egin ditu Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileak / 3

Irisgarritasun Unibertsalaren Plan Integrala martxan jartzeko parte hartze prozesua, abian / 4

Gaurtik aurrera, hilak 7, euskal dokumentalgileen onena ekarriko dute Lasarte-Oriara / 7

Motorzaleen rallyaren mende laurdena ospatzen hasi da Scooter Club Euskadi elkarteak / 8

Aitor Manso gidariak 2024. urteko Euskadiko txapelketako sariak jaso ditu / 10

Eguzki Bodegas Ayesa taldeak ligako lehen fasea sailkapeneko buruan amaitu nahi du / 11

AZKEN EGUNAK

MERKEALDIA

2MÓ 189€

lehen 229€

erreflexuen aurkako
betaurreko progresiboak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



MULTIÓPTICAS

R.P.S. 91/20

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com





Pentsioak Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin pareka ditzaten eskatzeko lehen sinadura bilketa aurrera eramán du herritar talde batek, Okendo plazan. TXINTXARRI

Gutxieneko pentsioaren alde

Euskal Herriko Pentsionisten Mugimenduak berriki martxan jarri duen Herri Ekimen Legegilea babesteko sinadura bilketa aurrera eramán du lasarteoriatar talde batek. Okendo plazan bildu dira eta datozen egunetarako zehaztu dituzte hitzordu gehiago

Txintxarri

Eskakizun argi bat egiteko batu dira herritarrek: pentsioak Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin (1.184 euro) parekatzea. Gogorarazi dute aldarrikapen historiko horrek sei urte baino gehiagoko ibilbidea urratu duela: batetik, hainbat mobilizazio burutu ondoren, eta, bestetik, 150 udalaren eta Gipuzkoako Batzar nagusitan onartua izan den mozioa kontuan izanda.

Aldarrikapena egitearekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko pentsionisten gaineko datuak plazaratu dituzte, eta, esan, adibidez, hiru pentsionistatik bat ez dela Lanbide arteko Gutxieneko Soldatara jasotzera iristen; hau da, hilerio 1.184 euro baino gutxiago jasutzen dituela.

Egoera hori irauli egin behar dela nabarmendu dute Okendo



Herritarrek sina dezaten mahai bat jarri dute Okendoko agerraldian. TXINTXARRI

plazan bildutakoek, eta, azaldu, hori gertatu ezean, pentsiodunen pobrezia iraunaraziko dutela. Egoera horrek bereziki eragiten

dien emakumeak izan dituzte ahotan: "Aitortu gabeko lan erreproduktiboetan eta zaintza lanetan" aritu izan direnei. Ho-

nako adierazpenok egin dituzte gero: "Argi dago, orain arteko genero arrakala murrizteko neurriak ez direla nahikoak izan. Izan ere, hamarretik zazpi emakumek 850 euro baino gutxiago kobratzen baitituzte".

Lasarteoriatarren atxikimendua

Arestian aipatu bezala Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren % 100arekin parekatu eta pentsiodunen diru sarrerak osatzeko nahiaz gain, Herri Ekimen Legegilearekin gutxieneko pentsioak osatzeko euskal sistema bat garatzea lortu nahi dutela azpimarratu dute, horrela pentsionisten gizarte bazterketako arriskua prebenitzeko.

Aitortu dute "erronka handia" dutela eskuartean, izan ere, 30.000 sinadura lortu nahi ditu mugimenduak. Gauzak horrela, herri gisa ekarpena desafio horri ekarpena egin asmoz bat egin dute lasarteoriatarrek ekimenarekin, eta, herritar orori dei egin diete eurak ere batu daitezten: "Hemendik herritar guztiei deia luzatzen diegu beren sinadura bitartez norberak bere aletxoak jarri dezan. Izan ere arazo hau ez baita soilik pentsiodunena, baizik eta herritar guztionena, oraingo eta ondorengo pentsiodunena, alegia. Elkarteei esan nahi diegu gure asmoa dela euren gaitasuna".

Gauzak horrela, ahalik eta babes gehien lortzeko helbu-

GUTXIENENKO PENSIOAK OSATZEKO EUSKAL SISTEMA BAT GARATZEA LORTU NAHI DUTE

ruarekin, herriko zenbait auzotan egongo direla iragarri du taldeak. Hilaren 8an, larunbatarekin, Euskotren geltokian, Okendo plazan, Zumaburuko Ola kalean, Zabaletako Osiña plazan eta Jaizkibel plazan jasoko dituzte sinadurak 10:00etatik 14:00etara. Eta, hilaren 12an, berriz, Andatza plazan egingo den azokan egongo dira. Hitzordu gehiago ere etor daitezkeela aurreratu dute, eta, esan, horiek datozen egunetan jakinaraziko dituztela. Adierazi dute sinadura biltzen mahaian egon nahi duen edo gai honen inguruan interesa duen edonor "ongietorria" izango dela. Horretarako, honako telefono zenbakira mezu bat bidal dezakete interesdunek: 672 21 29 60.

Sinatzeko, ezinbestekoa

Taldeko kideek oroitarazi dute Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dagoen 18 urtetik gorako herritar orok eman dezakeela bere sinadura; horiei NAN nortasun agiria eskatuko diete mahaian daudenek datuak zuzen idatzita erregistratzen direla ziurtatzeko.

Agerraldia amaitzeko Xumela koruko lagunekin batera *Epo i tai tai e* abestia abestu eta dantzatu dute Okendo plazan bildutakoek; horien artean izan Josu Txapartegi *Txapas* ere, akordeoiarekin.

Datozen hitzorduak

Hilak 8, larunbata

• **Lekuak:** Euskotren geltokia, Okendo plaza, Ola kalea, Osiña plaza eta Jaizkibel plaza.

• **Ordua:** 10:00etatik 14:00etara.

Hilak 12, asteazkena

• **Lekuak:** Andatza plazako azoka.



Datozen egunotan aurrera eramango dituen deialdien berri emateko prentsaurrekoa aurrera eraman du eragileak. TXINTXARRI

Bi hitzordu Saharari elkartasuna adierazteko

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileak bi deialdi egin dizkie herritarrei. Janari bilketa aurrera eramango du bihar, hilak 8, eta, hilaren 27an, berriz, elkarretaratzea deitu du. Lasarteoriatarrek horietan parte hartzea deitu ditu

Txintxarri

Hilaren 8an, larunbatarekin bilduko dituzte produktuak 10:00etatik 14:00etara. Herriko Eroski eta BM Loidibarren supermerkatuetan aurrera eramango dute ekimen hori, eta horren garrantzia nabarmendu dute Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeko ordezkariak: "Errefuxiatuen kanpalekuetan hilabete batzuk daramatzate janari eskasiarekin, beraz, premiazkoa da janari bilketa hau egitea". Adierazpenok eginda, herritarrak bertan kolaboratzera deitu

dituzte, eta, gogorarazi, Euskal Herri osoan egingo dela.

Bigarren hitzordua, berriz, hilaren 27rako finkatu dute. Saharar Errepublika demokratikoaren 49. urteurrena izango da egun horretan, eta hori aitzakiatzat hartuta, 19:30ean Okendo plazan elkarretaratzea deitu dute. Herritarrak deialdi horrekin ere bat egin dezaten eskatu dute. Horri lotuta, aurreratu dute datorren udalbatzarrean lantzeko mozio bat erregistratu dutela; horren bitartez, udaltxeko balkoian Saharako

bandera eskegitzea, eta kontzentrazioan parte hartzeko konpromisoa galdegingo diete udal ordezkariak.

Oporrak Bakean

Hitzordu horiek iragartzeaz gain, haur sahararrei uda sasoa Euskal Herrian igarotzea ahalbidetzen dien Oporrak Bakean programa martxan dela ere jakinarazi dute. Momentuz, aurreratu dute informazioa da udalarekin harremanetan daudela, eta datozen egunetan egingo dutela aipatu egitasmoaren aurkezpena.



Manifestariak, Kale Nagusia zeharkatzen. TXINTXARRI

"Behin betiko konponbidearen alde" lanean segiko dute

Hilabetero bezala aurrera eraman dute urtarileko Azken Ostirala, Elizatetik Okendo plazara arte manifestatuta

Txintxarri

Arratsaldeko zortzietarako bildu ziren manifestari gehienak Elizatze plazan. Ordu laurden geroago ekin zioten bideari, *Jabi-Ibon etxera* lelodun afixa eskuetan (Jabi Gallaga eta Ibon Fernandez Iradi herritarrak etxeratzea eskatzeko). Erdigunea zeharkatu eta Okendora joan ziren, urtarileko adierazpena partekatuzera ekintza horretara bertaratu zirenekin.

Joan den urtean egindakoa errepasatu zuten: "Aurrerapauso handiak eman genituen euskal preso, iheslari eta deportatuen etxerako bidean". Edonola ere, nabarmendu zuten "asko" dagoela egiteko oraindik, eta, horregatik, "bide horretan sakondu eta gatazkaren ondorioen behin betiko konponbidea bururaino gauzatea" eskatzeko lanean eta mobilizatzen jarraituko dute aurrean ere.

Diskurtso horrekin berarekin bete zituzten Bilboko kaleak hilaren 11n, manifestazio nazional horretan "milaka eta milaka pertsonak" parte hartu zutelaz azpimarratuta. "Urteetan zehar euskal gizartea kolpatu duen gatazkaren ondorioak behin betiko amai daitezten eskatu genuen".

Bukatzeke, azpimarratu zuten "behin betiko konponbidearen alde" aldarrikapen ekintzak gauzaten segituko dutela. Helburu hori erdiestekoa laguntza behar dutela jakitun, eskua luzatu diete sindikatuak, alderdi politikoei eta eragile sozial nahiz politikoei. Halaber, elkarlanean aritzeko deia egin diete estamentu politiko eta judizialei ere, "salbuespen legeak amaitzearen alde lanean" jarrai dezaten. Horrekin amaitzeko, "lege aldaketak aplikatzen hastea" galdegin zieten.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66



Irisingarritasun Unibertsalaren Plan Integrala garatzeko herriko hainbat eremu aztertuko ditu udalak, hala nola, bide publikoak. TXINTXARRI

Lasarteoriatarren irisingarritasuna ardatz

Lasarte-Oriako Udalak Irisingarritasun Unibertsalaren Plan Integrala (IUPI) garatzeko parte hartze prozesua abiatu du. Horren helburua da pertsona guztiek udalerrian modu libre eta autonomoan ibitzeko duten eskubidea bermatzea

Txintxarri

IUPI Irisingarritasun Unibertsalaren Plan Integrala udalerrian dagoen irisingarritasun maila ebaluatzeko eta oztipo arkitektoniko, sozial eta komunikatiboak gainditzeko beharrezko neurriak proposatzeko tresna da.

Plan honek Lasarte-Oriako pertsona guztientzako ingurune inklusibo bat eraikitze duen konpromisoa islatzen duela azpimarratu du udalak, mugikortasun, entzumen, ikusmen edo kognizio mugak dituzten kolektiboak barne. Gaineratu du hezkuntza, kirola, turismoa eta kultura bezalako sektoreetan neurri zehatzak proposatzen direla.

Aztertuko dituzten eremu nagusien artean hauek nabarmendu dituzte: Bide publikoak (kaleak, plazak, parkeak, arrapalak, oinezkoentzako pasabideak eta hiri altzariak); eraikinak (sarbideak, igogailuak, seinaleak eta zerbitzu egokituak); garraioa (geralekuak, mugikortasun urriko pertsonentzako plazak eta garraio sistemen

irisingarritasun orokorra); eta, komunikazioa (informazio sistematik, irisingarritasun seinalizazioak eta irisingarritasun unibertsalaren prestakuntza).

Bilera irekiak

Proposamenak eta iritziak jasotzeko lehen bilera eginda (lanen aurreko fasea, helburu nagusiak eta esku hartze eremuak ezagutu dituzte bertaratutakoek), beste bi aurreikusitako udalak: apirilean bat, diagnostikoa eta jarduera plana ezagutarazteko; eta ekainean bestea, txostena aurkezteko. Data zehatzak aurrerago zehaztuko dituzte.

Antolatzaileek jakinarazi dute saio horietan oztipo nagusiak identifikatu, eta Lasarte-Oria irisingarriagoa egiteko ekintzak lehenetsiko direla. Gainera, udalak herritarren parte hartze aktiboa sustatuko du inkesten eta kontsultarako beste mekanismo batzuen bidez.

Gauzak horrela, udalak herritarrek gonbidatu ditu prozesu

horretan aktiboki parte hartzera eta euren ideiak eta esperientziak partekatzea, IUPIk udalerriko beharrian errealak kontuan har ditzan.

Informazio gehiago nahi duenak, udalaren web ataria (www.lasarte-oria.eus) kontsulta dezake, edota Herritarren Parte Hartze sailarekin harremanetan jar daiteke.

HERRITARREN IRITZIAK JASOTZEKO HURRENGO BILERA APIRIL HASIERAN EGINGO DUTE

LASARTEORIATAR GUZTIENTZAKO INGURUNE INKLUSIBO BAT ERAIKITZEKO ASMOA DUTE



Gurutze Gorriak gure herrian duen egoitzaren kanpoaldea. TXINTXARRI

Kanpaina egingo dute adinekoen ongizatea sustatzeko

Gurutze Gorria erakundeak 'Enrédate' egitasmoa jarri du martxan; bi saio egingo ditu hilaren 11n eta 25ean

Txintxarri

Gurutze Gorria erakunde humanitarioak *Enrédate* izeneko egitasmoa jarri du martxan, helburu hauekin: adinekoek euren esperientziak partekatzea besteekin, trebetasun berriak ikastea eta jarduera ugariz gozatzea talde giroan. Programa horretako saioak hilaren 11n eta 25ean aurrera eramango dituzte, goizez, Gurutze Gorriak Adarra kaleko 1. zenbakian duen egoitzan.

Parte hartu nahi duten herritarrek 943-10 30 22 telefono zenbakira deitu dezakete izena emateko, WhatsApp mezu bat

bidali 647 37 15 26 zenbakira edo, bestela, mezu elektronikoa bat idatzi manuel.decabo@cruzroja.es helbidera. Hauxe da bi saioetarako prestatu duten egitaraua: 10:30etik 11:00etara, informazioa emateko saioa; adinekoak eta sare sozialak; 11:00etatik 12:30era, ariketa praktikoa: *Enrédate con los números*; 12:30etik 13:00etara, airezko frijigailuan egindako sagar txipak jango dituzte.

Lasarte-Oriako Udalak aipatu ekimena babestu du, "zahartze aktiboa eta adinekoak diren pertsonen arteko harremanak sustatzeko".



EAGI ERAIKUNTZA ESKOLA

Ikasleen lana, bertatik bertara

Ikasleprograma erkidegoko Lanbide Heziketa ikastetxeetan garatzen den ekimena da, ikasgeletan eskola enpresak sortzeari buruz. Ikasleek enpresa txiki bat muntatu behar izaten dute ikasgelan eta horri dagokion guztia egin: administrazioa, marketina, salerosketak, irudi korporatiboa... EAGI eraikuntza eskolak ere parte hartu dute aurtengo aldian.

Udalerriaren tentsio egoera ofizial egin dute

Tramitazioa amaitu eta Etxebizitza Eremu Tentsionatu izendatu dute Lasarte-Oria. Agustín Valdivia alkateak adierazi du "oso pozik" daudela, neurriak hartzen hasi ahalako duelako udalak, besteak beste, etxebizitza hutsei buruzko ikerketa bat egitea

Txintxarri

Etxebizitza bat alokatzea edo erostea gero eta zailagoa da edozein udalerritan eta Lasarte-Oria ez da salbuespena. Hori dela eta, Etxebizitza Eremu Tentsionatu izendatua izateko eskaera egin zuen udalak irail amaieran (Gipuzkoako hirugarren herria izan zen) eta orduan bidali zion dokumentazio guztia Eusko Jaurlaritzari, erakunde horrek beharrezko tramiteak martxan jarri zitzaizkion. Agerikoa zen egoera hori lau hilabete geroago ofizial egin dute, eta, jakinarazpena jaso berrikan, albistea baloratu du Agustín Valdivia alkateak: "Oso



Eremu tentsionatu izendatzeko eskatu duen Gipuzkoako 3. udalerrria da gurea. TXINTXARRI

pozik gaude, alokairuaren gainean neurriak hartzen hasiko garelako".

Argitu du, hori bai, Estatua-ren Buletin Ofizialean argitaratu behar dutela lehenago. "Eskaintza urria dugu alor horretan, oso garestia da eta ez du ia ezer irauten merkatuan. Horren aurrean, gure jabetza-koak diren bizitoki huts gutxi horiek merkaturatu behar ditugu, eta, zein baldintzatan eskaini behar ditugun jakiteko, ikerketa bat abiatuko dugu, etxebizitza kanona aplikatzen hasteko [Azpeitia izan da jabeen errekaru hori aplikatzen hasi den aurrenekoa] eta babes ofizialekoak izango diren etxeak eraikitzen hasteko; gero, alokairura bideratuko ditugu horietako zenbait".

584 etxebizitza

Alkateak gogorarazi du duela zenbait hilabete onartu zutela Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO), eta dokumentu horretan jaso zutela Babes Ofizialeko 584 etxebizitza eraikitzea; horietatik 300 alokairukoak izango direla zehaz-

tu du. Horrez gain, gogoratu du gaur egun Maialen Chourraut kiroldegia dagoen eremuan 88 apartamentu eraikiko dituztela, lasarteoriatar gazteek "euren herrian bertan emantzipatzeko aukera gehiago" izan ditzaten. Bukatzeko, Donostiarekin mugakide diren gainerako udalerriak animatu ditu tramitazioa hasi eta Etxebizitza Eremu Tentsionatu izentzeko eskatzera: "Guk pairatzen dugu tentsio gehien merkatu libreko alokairuari dagokionean". Datuak eskuetan, Lasarte-Oriako biztanleria %14 hazi da 2001etik gaur egunera arte. Tarte horretan, bizitoki eskaintza %12 areagotu da, eta, horregatik, Valdiviak onartu du "etxebizitza eskasia" dagoela oraindik gure herrian.

Etxebizitza Eremu Tentsionatu izendatua izateko baldintzetako bi behintzat betetzen ditugue udalerririk. Alokairuaren prezioa %17 ez, %18,15 hazi da azken bost urteetan eta lasarteoriatarrek euren diru sarreraren %30a baino gehiago bideratzen dute hileroko kuota ordaintzera, zehazki, %32,2.

ORUARTE BHI

Matrikulazio epea OTSAILAK 3tik 14ra

- 12-18 urte bitarteko ikasketak
- DBH - Batxilergoa
- Jangela zerbitzua
- Euskal kultura eta kulturartekotasuna bultzatuz
- Hezkidetzak
- Agenda 2030
- Mugikorrik gabeko ikastetxea



DBH

BATXILERGOA

Giza eta Gizarte zientziak
Zientzia, osasuna eta teknologia

Zerbitzu publikoko bokazioa duen kalitatezko hezkuntza

Euskalduna, eleanitza, demokratikoa, parekidea, komunitarioa eta izaera laikoa duena.

Hezkuntza aktiboa bultzatuko duena.

Gizarte hobe eta bidezkoago batekin konpromiso indartua izango duten ikasleak heziketo dituen.

943 899494

info@oriarte.eus

Landaberri eraikina (DBH1/2)

Pintore kalea 2

Larrekoetxe eraikina (DBH 3/4 eta Batxilergoa)

Buenos Aires aldapa 1 Lasarte-Oria

www.oriarte.eus



Maiatzerako giroa berotzen hasiko dira

Euskaraldiaren laugarren aldia maiatzaren 15etik 25era izango da eta Lasarte-Orian hasita daude ariketa sozial horren bueltakoak prestatzen. Elkarrekin eta eragileekin aurkezpen bilera bat egingo dute hilaren 12an, 15:30ean, udaletxeko multimedia gelan

Txintxarri

Euskararen erabilera bultzatzeko ariketa erraldoiaren laugarren aldia gero eta gertuago dago: maiatzaren 15etik 25era ospatuko dute Euskal Herri osoan barrena, eta, jakina, baita Lasarte-Orian ere. Euskaraldiaren bueltakoak prestatzen hasita dago honezkero talde eragile bat (Lasarte-Oriako Euskaraldiaren koordinazio gunea) eta iragarri du udalerriko elkarrekin eta eragileekin batera egingo duela saio bat hilaren 12an, asteazkenarekin, 15:30ean, udaletxeko multimedia gelan (bertara igotzeko eraikin zaharreko arkupeetan elkartuko dira antolatzaile eta



Euskaraldia: 11 hizkiko hitza eta 11 eguneko ariketa. TXINTXARRI

partaideak). Aurkezpen bilera horren helburu nagusia da gure herriari bizia ematen dioten horiek aktibatzea eta udaberriaren aurreneko egingo duten Euskaraldiaren nondik norakoak esplikatzeko. Behin elkartuta, maiatzerako motorrak berotzen hasteko balioko duen talde argakia ere aterako dute.

Antolatzaileek ohartarazi dute bilera horretan parte hartu nahi dutenek aurrez izena eman beharko dutela esteka honetan: <https://labur.eus/aurkezpen-lasarteoria>. Bide batez, jakinarazi dute entitateek badutela Euskaraldian inskribatzeko aukera eta hilaren 12an bertan egin ahal duela tramite hori hala nahi duenak.

'Elkar mugituz egingo dugu'

Euskararen erabilera aktibatzeke ariketa sozialaren laugarren aldiak berrikuntza batzuk dakartza. Horietako bat, nabarmenena ziur asko, data aldaketa: orain arteko hiruak udazkenean egin dituzte eta aurtengoa, berriz, udaberriaren izango da, esan bezala, maiatzaren 15etik 25era; 11 eguneko jardua,

beraz. Norbanako, eragile eta entitateak mobilizatzeko leloa haxe izango da: *Elkar mugituz egingo dugu*.

Euskaraldian parte hartzeko rol nagusiak ez dira aldatuko: Ahobizi edo Belarriprest izan ahal duen partaideek eta soinean txapak jantzita adieraziko dute bat edo bestea izango direla 11 egun horietan zehar. Ahobiziek euskaraz esango dute aurreneko hitza beti eta hizkuntza horretan hitz egingo dute, parean dutenak edo dutenak beste hizkuntza batean hitz egiten badute ere. Belarriprestek, berriz, adieraziko dute edonork ahal duela beraiekin euskaraz hitz egin, hizkuntza hori ez mintzatuta ere ulertzeko gai eta elkarrizketa bat izateko gai badirelako.

Momentuz udalerriek (Euskal Herri osoko dozenaka herri eta hiri batu dira ekimenera dagoeneko) edota entitateek izena eman dezakete Euskaraldiaren atari digitalean: <https://euskaraldia.eus/>. Antolatzaileek iragarri dute martxoan irekiko dutela norbanakoak inskribatzeko epea.

Euskal Dokumentalen Zikloa, bosgarrenez

Okendo Zinema Taldeak, udalarekin elkarlanean, film dokumentalen generoko onena ekarriko du Lasarte-Oriara aurtengoa ere, berrikuntza nabarmen batekin: hilaren 14ko pasea ikus-entzunezko laburren eguna izango da; lau lan proiektatuko dituzte

Txintxarri

Sexu abusuak, memoria historikoa, gerra eta migrazioa, musika eta esperimentazioa... Okendo Zinema Taldeak gai interesgarri ugari esploratuko ditu aurtengoa ere, Euskal Dokumentalen Zikloaren bosgarren aldiak. Gaurtik (hilak 7) hilabete amaierara arte lau proiektu antolatuko ditu udalarekin batera eta horietako bat, hilaren 14koa, berria eta berezia izango da: film laburren eguna. Pase guztiak kultur etxeko auditorioan aurrera eramango dituzte eta 20:00etan hasiko dira. Sarrerak salgai jarri dituzte, 6 eurotan; kultur etxeko leihatilan edota Kutxa-

bank Sarrerak atari digitalean eros ditzakete lasarteoriatarrek. Aipatu ziklo hori oso baliotsua da, besteak beste, emanaldi bakoitzera bertaratzen direnak aukera izango dutelako dokumental bakoitzaren zuzendariekin bertatik bertara hitz egiteko eta bakoitzaren lanaren nondik norakoen berri izateko.

Arestian esan bezala, gaur bertan hasiko da bosgarren Euskal Dokumentalen Zikloa. Amaia Merinok eta Ander Iriartek ondutako *Indarkeriaren oi(h)artzuna* ikus-entzunezkoak irekiko du aurtengoa kartelera. Tamara Muruetagoiena da kontakizunaren protagonista; duela 40 urte

bere familia bahitu zuen ETak eta bere aita hil zuen Espainiar Estatuak, torturapean. "Egia aurkitzeko bideari" ekin zion Tamarak eta bizitako guztia kontatzen du: bahiketa, familia desegituratzea, torturak, hilketak, estatuaren jazarpeneko makineria... eta baita bere lanketa propioa ere, hau da, gatazkak konpontzeko tresna nagusi gisa elkarrizketa erabiltzearena.

Hilaren 14an *Puzzleak*, *De agua y arena*, *Zona Wao* eta *Europa* lanak emango dituzte; 21ean, *Zinzindurrunkarratz*; eta, azkenik, 28an, *Itoiz udako sesioak*. Proiektu horiek denak aurrenekoaren toki eta ordu berean izango dira.

LASARTE-ORIAKO
EUSKAL DOKUMENTALEN ZIKLOA

OKENDO ZINEMA TALDEA

7

INDARKERIAREN OIHARTZUNA
Amaia Merino eta Ander Iriarte

21

ZINZINDURRUNKARRATZ
Oskar Alegria

14

FILM LABURREN EMANALDIA

PUZZLEAK (Bortxaketaren jauregia)
Kote Camacho 15'

DE AGUA Y ARENA
Telmo Irueta. 28'

ZONA WAO
Nagore Ezeliza. 25'

EUROPA
EUROPA. Ekaín Irigolien. 7'

28

ITSAILIKO OSTIRALAK 20:00tan
LOS VIERNES DE FEBRERO

ITOIZ udako sesioak
Larrazti Zuazo, Zuri Goikoetxea, Ainhoa Andreaka

ZINEFORUMA CON INVITADAS/OS

GONBIDATUEKIN

www.okendozinema.org

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

KULTURA, HEKUNTZA
ETA BIZIARRA
KULTURA, EDUCACIÓN
Y DEPORTE

Emanaldi sorta erakargarria prestatu dute aurtengorako ere. OKENDO ZINEMA TALDEA

Ezagutzea eta kontzientziatzea helburu

XVII. Itsaspeko Zinema Zikloaren aurkezpena egin dute berriki. Hilaren 10etik 27ra bitarte, hiru dokumental eta hainbat film labor ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Horrez gain, argazki erakusketa eta txikizikloa ere aurrera eramango dituzte

Txintxarri

Manuel Lekuona Kultur Etxean aurkeztu dute XVII. Itsaspeko Zinema Zikloa, eta iragarri dute hilaren 10etik 27ra bitartean izango dutela interesdunek egitasmo hortaz modu batera edo bestera gozatzeko aukera. Agustín Valdivia alkateak, Kultura saileko zinegotzi Ainara Elicecheak, Danok Kide Guraso Elkartearen ordezkari Jesus Mari Eguizabalek, eta ekimenaren zuzendari David Sanchezek eman dituzte xehetasun guztiak.

Kontatu dute hiru astelehenean proiektatuko dituztela ikus-entzunezkoak; hilaren 10ean, 17an eta 24an, hain zuzen. Egun bakoitzean dokumental ezberdin bat proiektatzeaz gain, zenbait film labor ikusteko aukera ere izango dute bertaratzen direnek. Horieta guztietan itsaspeko edertasuna antzemateaz gain, gizakia hori nola kaltetzen ari den ere ikusi ahal izango dute ikus-entzuleek.

Aurreko aldietan bezala, ikas-toletako gaztetxoek aurten ere izango dute aipatu zikloaz gozatzeko aukera. Hilaren 10ean, 10:00etan, kultur etxean beraien-tzako saio bat aurrera eramango dute. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleek parte hartuko dute, eta itsas ekosistema ezagutzera hurbiltzea eta ingurumena-



Kultur etxeko hitzaldi aretoan aurkeztu dute itsaspeko zinema zikloa. TXINTXARRI

rekiko jarrera arduratsua sustatzea du helburu.

Emanaldi guztiak doakoak izango direla gogorarazi dute antolatzailerak, eta hori hala izan dadin Lasarte-Oriako Udalaren eta Danok Kide Guraso Elkartearen babesa azpimarratu du Sanchezek.

Aurtengo zikloaren berrikuntza zein izango den ere iragarri du. Kultur etxean ikusiko diren zenbait ikus-entzunezko Atsobakar egoitzan ere proiektatuko dituzte, nahiz eta momentuz, ez duen horren gaineko bestelako informazioz eman, egoitzako arduradunekin jarduera hori noiz aurrera eraman lantzen ari baitira.

Halaber, hilaren 10etik 27ra bitartean argazki erakusketa bisitatzeako aukera izango dute herritarrek. Horrela, itsasoen edertasunean murgiltzeko aukera izango dute, itsaspeko argazkilari ospetsuek ateratako irudi ikusgarriak esker. Ohartarazi dute astelehene ostiralera bisitatu ahal izango dela hori, 17:00etatik 20:00etara, kultur etxeko kafetegian.

Egun bakoitzean proiektatuko diren ikus-entzunezkoen gaineko informazio guztia agerkari honen atari digitalean kontsulta dezakezue: www.txintxarri.eus.

Buruntza mendiko Andoaingo gailurreko ikurrina bota dute

Oraingoz behintzat, inork ez du ekintza horren egiletza bere gain hartu. Botatakoa erretiratu dute jada tontorretik

Txintxarri

Buruntza mendiak Andoaingo lurretan duen tontorreko ikurrina eusten zuen masta eraitsi dute berriki, oinarria tresnaren batekin ebakita. Inork ez du ekintza horren egiletza aitortu,

oraingoz behintzat. Eskualdeko udalerrri horretako abertzale talde batek jarri zuen azpiegitura hori 2022ko urrian, hamarkada luzez egon zen gurutze frankistaren ordeze (2021eko abenduan bota zuen Ernai antolakundeak).



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

Gune tentsionatua

Sarean topatutako informazioaren arabera, Etxebizitza Gune Tentsionatua, alokatzeko etxebizitzaren eskaintzaren eta eskariaren artean desoreka dagoen eskualdea da, hauek bidezko prezioan eskuratzea zailtzen duena. Gure herria Etxebizitza Gune Tentsionatu gisa izendatu izanaren berria heldu zitzaigun duela egun batzuk eta ezustean hartu gintuen albisteak (bai, ironia da).

Asko gara egoera honen ondorioak pairatzen ditugun profilak, langile klaseak barnebiltzen dituenak, oro har, baina, nik gazteon paperetik hitz egin nahiko nuke datozen lerroetan. Izan ere, tentsioan dauden eremuetako etxebizitzaren arazoa ez da gai ekonomikoa bakarrik, soziala ere bada; milaka gazteren bizitza baldintzatzen du, ikasketak amaitu edo adin-nagusitasunera iritsi ondoren, bizilekuen egonkortasunari dagokionez zalantza horizontea besterik ez baitu zabaltzen.

Eta hori da nire inguruko adinkideen artean ikusten dudana; aldi baterako lanak edo ezegonkorak, gastuen erdia ere estaltzen ez dutenak, eta alokairuak, hilaren amaieran, irabaztea lortzen dugun ia guztia irensten dutenak. Ziklo amaigabe batean harropatuta egotearen sentipena etsigarria da. Gazteok behartuta gaude gurasoekin edo pisu partekatuetan bizitzera, egunean egunekoa egitera aurrezteko sekulako zailtasunekin. Ondorioz, etxebizitza jabetzan hartzeak urrutiko ametsa dirudi. Etxe bat erostea ia ezinezkoa da familiaren babes ekonomikorik edo lan-egonkortasunik ez badugu, eta hori, askotan, ez da inoiz iristen. Presioa hain da handia, ezen epe luzeko bizi proiektu egonkor batean pentsatzeko ideia zalantza hori bihurtzen baita. Nola planifikatu duzu zure bizitza hurrengo hilean alokairua ordaindu ahal izango duzun ez dakizunean? Errealitate horrek gure bizi-kalitateari ez ezik, gure osasun mentalari ere eragiten dio.

EAEko zenbait hiritako batez besteko alokairua %20 igo omen da azken urteotan eta horrek larriagotu egiten du gazteen diru-sarreraren eta etxebizitza duin baten kostuaren arteko aldea. Gainera, arazoizko prezioetan alokairu eskaintzarik ezak edo babes publiko etxebizitzaren eraikuntza eskasak desoreka hori areagotzen dute. Askotan, gazteon aukerak deuseztatzen dituzte inbertitzaileekin edo turistekin eta aldi baterako alokairuetarako etxebizitzak bereganatzen dituztenekin negozioa eginez. Horrek, are gehiago handitzen du prezioen gaineko presioa, eta tokiko biztanleentzat etxebizitzaren eskuragarritasuna murrizten du.

Zer geratzen zaigu orduan? *A priori* eskurazina dirudien zer-baiten alde borrokatzea. Etxebizitza eskuratzea erraztuko duten, alokairu-prezioak arautuko dituzten eta babes publikoko etxebizitzaren eraikuntza sustatuko duten politika publikoak eskatzea. Politika hauek etxebizitza eskuragarrien eskaintza bermatu beharko lukete, bai alokairuan, bai erosketan, batez ere tentsio handieneko eremuetan. Lurzoru-politikak, etxebizitza babestuak eraikitzekeo pizgarriak eta alokairu-merkatuaren erregulazioa gazteon gaineko presioa arindu dezaketen neurriak izan beharko lirakeke. Asko maite ditut nire pixukiak baina, taldean bizi nahi dut nik hala erabakita eta ez egoerak behartuta.

Bilera irekia egingo dute Sorgin Jaiak eragileko kideek

Herriko jai eredu alternatiboaren alde lan egiten duen taldeko kide izatera gonbidatu ditu herritarrek Sorgin Jaiak-ek. Lana eta antolatzekeo modua azaltzeko lagu-

narteko bilera ireki bat egingo dute sorginek bihar (hilak 8), Antonio Mercero aretoan, 12:30ean. "Adina ez da oztopo bat etorri eta laguntzeko; gazteak zein helduak, guztiok izango zarete ongi-etorriak!". Antolatzaileek aurreratuko dute zizka-mizka batzuk eraman dituztela.

Batzen dituen zaletasuna 25. aldiz ospatuko dute

Scooter Club Euskadi elkarteak mende laurden darama Vespa eta Lambretta marketako ibilgailuen rallya egiten. Talde horretako kideek aurreratu dute ekainaren 13tik 15era egingo dutela aurtengoa eta aurreko hilabeteetan ekimen gehiago ere izango direla

Txintxarri

Motorrek are ozenago egingo dute burrunba, Scooter Club Euskadi elkarteak mende laurden daramalako Vespa eta Lambretta marketako ibilgailuak dituzten zaleak elkartzen, rallyetan. Aurtengo ekimenaren programa zehatza aurrerago iragarriko dute baina jakin arazi dute ekainaren 13tik 15era izango dela eta gaueko kontzertuetarako "ohi baino talde ezagunagoak" ekartzeko asmoa dutela. Ospakizunak, hala ere, ez dira hiru egunekoak bakarrik izango, jarduera jakin bat 25 aldiz egitea ez delako ahuntzaren gauerdiko ez tula: "Egitarau oparoa prestatu dugu eta lasarteoriatar ahalik eta gehien elkartu, beraiek ere festaren parte izan daitezten", nabarmendu du eragile horretako kide Isa Lopezek. Adibidez, aurreratu du Gipuzkoan barrena egiteko ibilbide bat prestatu dutela eta hilabetez hilabete egingo dituztela etapak;



Arkupe tabernan hasi dira urtemuga berezia ospatzen. TXINTXARRI

laster emango dituzte horiei buruzko xehetasun gehiago.

Beste jarduera baten berri ere eman du Lopezek: martxoaren leian, larunbatarekin, Inauteriak ospatuko dituzte motorzaleek Urdaira sagardotegian, urtero

legez. Aurtengoa, hala ere, "inoizko bazkari bereziarena" izatea nahi dute eta ahalik eta motorzale gehienak bertaratzea, Euskal Herrikoak ala Espainiar Estatuko beste nonbaitekoak izan.

Urteurren bereziari buruzko aurreneko zertzeladak emateko Arkupe tabernan elkartu dira Scooter Club Euskadiko kideak eta zenbait motorzale. Toki hori ez dute ausaz aukeratu, izan ere, azken urteetako rallyetan behintzat bertan egin ohi dute elkar agurtu aurreko pintxo-bazkaria. Oraingoan ere hori bera izan da planteamendua: Lopez arduratu da prentsako ordezkariei azalpenak emateaz eta Arkupeko langileak, berriz, bezeroek eskatu dutena zerbitzatu diete: bermuta, garagardoa, freskagarriak, tortilla patata pintxoak, urdai frijitu kurruskariak... eta baita moztailak fin eta maisuki moztutako urdaiazpiko errazioak ere.

Eguerdiko hamabietan hasi dira festarekin eta bazkalordurako beteta zegoen taberna. Eguraldia ezinhobeia izan da eta kanpoko giroa, bikaina. Baita taberna barrukoa ere: DJ lanak egin ditu Ramon Anguianok eta dantzan jarri ditu Arkupera joandako zenbait.



Ramon Anguiano DJak girotu zuen eguerdiko bermuta. TXINTXARRI



Ospakizun ekitaldia. NAIZEN ELKARTEA

Pailazoen lana saritu dute

Naizen elkarteak 10 urte bete ditu eta bidelagunekin batera ospatu du urtemuga hori

Txintxarri

"Pozez eta ohorez" jaso dute Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen Naizen elkartearen aitortza, eragile horren hamargarren urteurrena ospatzeko ekitaldian. Honela justifikatu dute sudurgorriak aintzatetsi izana: "Bidelagun izan delako hainbat ekitaldi eta kanpainen eta haur transen errealitatea ikusarazi duelako argitaratu duten materialetan eta aurrera eramane dituzten emanaldietan".

Pailazoen esker hitzak izan dituzte Naizeneko kideekiko: "Zorionak eta eskerrik asko, Naizen, zuen lana ezinbestekoa bezain ederra delako. Sentitu, pentsatu, ekin... Beti elkarrekin!".

1998koak elkartu dira

Primerako ospakizun eguna aurrera eramane dute 1998ko kintoeak. Urrietako Oianume jabetxasagardotegian bazkaldu eta gero herrira itzuli dira eta Oaintxe in deul txarangarekin batera alaitu dituzte kaleak. Urte horretan jaiotako 50 bat pertsona elkartu dira, eta, sortu duten giro ezinhobeia ikusita, ez litzateke harriztekoa hurrengoetako kuadrilla are jendetsuagoa izatea.





Xumelako, txistularien taldeko eta Earra! eskolako kideek komentuko mojak bisitatu dituzte aurten ere. TXINTXARRI

Lurra lozorrotik esnatu dute herriko ikasle, irakasle eta eragileek

Santa Ageda bezpera ospatu dute, goizetik iluntzera arte. Garaikoetxea-Landaberriko gaztetxoak eta nagusiak, Erketz EDT, Zabaleta Auzolan, Xumela korua, herriko txistularien taldea eta Earra! bertso eskola jardun dira aurten oles egiten, herriko kaleetan barrena

Iñigo Gonzalez Sarobe

Negua aurrera doa eta urtaroz aldatzeko aste batzuk falta diren arren, herritarrek aurrera eraman dute dagoeneko lurra lozorrotik esnatzeko aurreneko ariketa: Santa Ageda bezpera egunean (hilak 4, asteartearekin) koplak kantatu eta zorua egurrezko makilekin tinko jotzea. Garaikoetxeako zein Landaberriko ikasle eta irakasleak, Erketz Euskal Dantza Taldea, Zabaleta Auzolan elkarte, Xumela korua, herriko txistularien kuadrilla eta Earra! bertso eskola arduratu ziren horretaz.

Eguraldi ezinhobea lagun, goiz horretako plana aldatu eta ikasgeletan egon beharrean kalez kale ibili ziren Garaikoetxea-Landaberriko ikasle eta irakasleak oles egiten: Kale Nagusia, Elizatze plaza, Sagardotegi kalea... *Santa Ageda* abesti tradizionala

eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Oles, oles* modernoagoa (baina dagoeneko oso errotuta dagoena jarduera honetan) kantatu zituzten. Emanalditxo bakoitza bukatu eta gero, izara zuria zabaldu eta taldearen bueltan zebiltzan herritarrengana jo zuten, txanponak bota zituzten. Kalekoak soilik ez, etxeetako balkoietan zeuden zenbait bizilagunek ere jaurti zituzten zentimoak eta euroak.

Arratsaldean, berriz, Landaberri LHko gaztetxoaren txanda izan zen. Kale eta plaza batzuetan oles egin ostean Biyak Bat adinekoen egoitzara joan ziren, eta, ordu laurden inguruz kantatu eta gero, Okendo plazan bukatu zuten emanaldia.

Ilundu zen zerua baina kaleko giroa alai mantendu zuten lehen aipatutako bost eragileetako kideek. Bakoitzak bere ibilbide eta

erritmoetara oles egin zuten tabernetan, Brigitarren komentuan nahiz baserrietan.

Zabaleta Auzolan izan zen arratsaldeko saioari ekiten aurrena eta 18:00ak pasatxo hasi zen Zabaleta auzoko lurra esnatzen. Ordu horretan, atera aurreko entsegua burutzen ari ziren Erketz Euskal Dantza Taldeko lagunak. Entsegu lokaletik irten eta Santxo tabernan ekin zioten Urnieta bidean dagoen Buenabista sagardotegian amaitu zen bideari. Bapo edan eta jateko toki horiei aitortza egiten dien Sagardotegi kaletik abiatu zen Xumelako, txistularien taldeko eta Earra! eskolako kideek osatutako kuadrilla. Berehala abiatu ziren Brigitarren komentura, bertako mojekin abestu eta kantatzera, otoiitz saioaren hasiera adierazi zuten arratsaldeko zazpiak jo aurretik.



Toki ugaritan oles egin zuten ikasleek, adibidez, Elizatze plazan. TXINTXARRI



Txanpon uzta ederra bildu zuten Landaberri LHkoek Biyak Bat egoitzan. TXINTXARRI



Erketz EDTko lagunak Sasoeta auzotik ekin zioten eskeari. TXINTXARRI



Zabaletako zenbait bizilagun, eskean hasteko prest. ZABALETAKO AUZOLAN

Aitor Mansok 2024. urteko sariak jaso ditu

Aitor Manso herritarra mendi igoeretako txapelketako podiumera igo da Euskadiko Automobilismo Federazioko sari banaketan. 9. mailako garaikurra eta sailkapen orokorreko bigarren postuko saria jaso ditu, baita Espainiako txapelketako jardunarengatik oroigarria ere

Txintxarri

Euskadiko Automobilismo Federazioak iaz antolatutako txapelketa ezberdinetako sariak banatu zituen hilaren 2an, Agurainen. Arabako herriko Harresi aretoan saria jaso zuten gidari guztien artean, Aitor Manso herritarra izan zen. Mansok bi sari eta oroigarri bat jaso zituen Euskadiko txapelketan zein Espainiako lehiatan izandako jardunarengatik. Ikus koadroa.

Joan den urtean eskuratutako puntuei esker, herriko gidaria 9. mailako podiumeko gorenera igo zen eta eserleku bakarreko ibilgailuen mailan bigarren saria jaso zuen.



Aitor Manso, podiumean saria jasotzen. EUSKADIKO AUTOMOBILISMO FEDERAZIOA

Mansok azaldu duenez, "aurten Espainiako txapelketan ere parte hartu dugu. Lehiaketetako bi

hitzorduk bat egin zuten datetan eta Espainiako lehia lehenestea erabaki genuen. Horrek, eser-

leku bakarreko ibilgailuen lehen sariak ihes egitea ekarri du; Iosu Beitiak puntu bakarraren-gatik eraman du garaikurra".

Horrez gain, federazioak maila ezberdinetan Espainiako txapelketako lehen postuetan sailkatu diren gidariei omenalditxo bat egin nahi izan zien eta Mansok hirugarren postuan sailkatzeagatik oroigarria jaso zuen.

Ez da sari banaketa denboraldia amaitu herritarrarentzat. Espainiako federazioak 2024ko Txapelaldun Gala antolatu du, hilaren 15ean, Madrilan, eta bertan izango da Lasarte-Oriako gidaria, mendi igoeretako hirugarren postuko garaikurra jasotzen.

Denboraldia airean

Ospakizun guztien ostean, iazkoa amaitutzat emango du Mansok, baina aurtengo txapelketa denboraldia airean duela jakitera eman du. "Autoa salgai jarri dugu eta maila bereko potentzia gehiago eta berria den ibilgailu bat lortu nahiko genuke", azaldu du.

Aldaketaren helburua Espainiako txapelketan lehiakorragoa

Emaitzak

Euskadiko txapelketa

- Aiatik Andatzara - 1º 9. maila
- Opakua igoera - 1º orokorra
- San Cosme igoera - 2º orokorra; 1º 9. maila
- Jaizkibelgo igoera - 2º orokorra; 1º 9. maila
- Dimako igoera - 2º orokorra; 1º 9. maila

Espainiako txapelketa

- Fitoko igoera - 3º
- Arinsal igoera - 3º
- Chantada igoera - 3º
- Onik igoera - 2º
- Eivissa irlako igoera - 3º

izan eta probaren batean podiumeko lehen mailara igotzea dela onartu du herritarrak.

Denboraldia kotxe zaharrarekin hasi eta gerora aldatzea ere burutik pasa zaiola aipatu du Mansok, baina guztia erabakitzeko dagoela gogora ekarri du, azkenik: "Oraindik ez dugu ezer lortu eta ezin dugu zehaztu zer gertatuko den".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONALA
Ostadar SKT - Tolosa CF B Larunbata. 16:45. Michelin kirol gunean.
GORENGO MAILA
Ostadar SKT - Ast. Mundarro FKE Igandea. 13:15. Michelin kirol gunean.
ERREGIONAL I. MAILA, KOPA
Ast. Mundarro FKE B - Ostadar SKT Larunbata. 18:30. Zarkumendegi, Astigarragan.
Texas Lasartearra CF - Orioko FT B Larunbata. 18:40. Michelin kirol gunean.
OJM, JAITSIERA
Ostadar SKT - Zarautz KE B Igandea. 15:10. Michelin kirol gunean.
JUBENILEN GORENGO MAILA
Mutriku FT - Ostadar SKT Larunbata. 18:45. San Miguel, Mutriku.
J. I. MAILA, IGOERA
Texas Lasartearra CF B - Amara Berri KE Larunbata. 11:20. Michelin kirol gunean.
J. I. MAILA, KOPA
Urnieta KE B - Texas Lasartearra CF Larunbata. 18:00. Urnietan.
J. I. MAILA, UDABERRI KOPA
Ikasberri KE B - Ostadar SKT C Larunbata. 15:45. Garmendipe, Azpeitian.
OKM, JAITSIERA
Hondarribia FE - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Hondartza, Hondarribian.
K. I. MAILA, KOPA
Ostadar SKT - Amara Berri B Larunbata. 14:50. Michelin kirol gunean.

Orioko FT B - Texas Lasartearra CF Larunbata. 09:00. Mendibeltz, Orión.
Santo Tomas Lizaso - Ostadar SKT (meskak) Igandea. 10:30. Herrera, Donostian.
K. I. MAILA, UDABERRI KOPA
Ostadar SKT C - Beti Ona CD C Larunbata. 12:55. Michelin kirol gunean.
ARETO FUTBOLA
I. MAILA
Afanxo FK B - Eguzki Arkupe Rehab. Ostirala. 21:20. Pasai Donibane kirol., Pasaián.
III. MAILA
Alza La Terraza CD - Eguzki ISU Leihoak Igandea. 09:30. Alza kirol., Donostian.
GAZTEEN MAILA
Mondrate CD - Eguzki Bodegas Ayasa Igandea. 12:00. Ituripe kirol., Arrasaten.
KADETE MAILA
Lauburu KE Ibarra A - Eguzki Goxokis Goxua Larunbata. 11:35. Belabieta kirol., Ibarra.
SASKIBALOA
II. MAILA
Txintxu Gozotegia ISB - Ostadar SKT (atzeratutako partida) Ostirala. 20:00. Azpeitiko kiroldegian.
Ostadar SKT - Txintxu Gozotegia ISB Larunbata. 14:00. Maialen Chourraut kirol.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
Biko Asesoria Oiarso SKT - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Don Bosco, Errenterian.
Ostadar Beltza - Saski Axular Igandea. 12:00. Maialen Chourraut kirol.
EUSKAL LIGA, KADETEA
Ostadar SKT - Urrategi Barne Diseinua

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA
Ostadar SKT - Arri BKL Txindoki Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.
KADETE PARTAIDETZA
Ostadar SKT - Albizu Harategia Debasket Larunbata. 11:30. Maialen Chourraut kirol.
BOLEIBOLA
EUSKAL LIGA, II. MAILA
D'Elhuyar Logroño - Ostadar SKT Larunbata. 16:30. Logroño, Errioxan.
SENIOR MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT - Tolobolei Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
JUBENIL MAILA, GIP. TXAPELKETA
Mayumi - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. La Salle, Irunen.
KADETE MAILA, GIP. TXAPELKETA
Ostadar SKT A - Hernani KE 3 Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
Harresi 3 - Ostadar SKT B Larunbata. 09:00. Hondartza kirol., Hondarribian.
PILOTA
UDABERRI, NAGUSIEN I. MAILA
Intza - Ilunpe Larunbata. 16:00 (2. partida). Michelin pil.
UDABERRI, GOMAZKO P. NAGUSIAK
Intza - Mundarro Ostirala. 19:15 (1. partida). Loidibarren pil.
TRINKETEA, NAGUSIEN II. MAILA
Behar Zana - Intza (Solano) Larunbata. 15:30 (2. partida). Ametsa tr., Irunen.

ESKUZ BINAKA, INF. I. MAILA
Arrasate 2 - Intza Igandea. 10:00 (1. partida). Udalekoa, Orión.
ESKUZ BINAKA, INF. II. MAILA
Intza - Hernani 4 Larunbata. 16:00 (1. partida). Michelin pil.
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA, I. MAILA
Urgozo Zomotza Rugby - Gipuzkoa Sortzen Larunbata. 18:00. Amorebieta-Etxano, Bizkaian.
EUSKAL LIGA, II. MAILA
Gipuzkoa Sortzen - Iruña RC Larunbata. 16:00. Atsobakar kirol gunean.
18 URTEZ AZPIKOA
Hernani CRE - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 16:00. Landare, Hernanin.
16 URTEZ AZPIKOA
Durango Cafes Dromedario RT - Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT Larunbata. 12:00. Durango, Bizkaian.
GIMNASTIKA
AMATEUR TXAPELKETA
LOKEko gimnastek amateur mailako 1. fasea izango dute. Larunbata. Labegarieta kirol., Bergaran.
TXIRRINDULARITZA
ESSOR BASQUE
Beñat Carbayeda herritarrak Tour de Basse Navarre eta Trophee de L'Essor lasterketetan parte hartuko du Caja Rural alea taldearekin. Ostirala eta igandea. Donapaleu/Maule.

ATLETISMOA
GIPUZKOAKO TXAPELKETA
18 eta 20 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute herriko atletak. Larunbata eta igandea. Antonio Elorza Bel., Donostian.
EUSKADIKO TXAPELKETA
Herriko atletak jaurtiketa luzeetako Adin txikioko Euskadiko txapelketan izango dira lehiak. Larunbata. 13:30. Durango, Bizkaian.
JUDO A
EUSKADIKO TXAPELKETA
LOKEko junior mailako judoek Euskadiko txapelketa lehiatuko dute. Larunbata. 16:30. Urnietan.
IGERIKETA
EUSKADIKO TXAPELKETA
Buruntzaldea IKTo infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Euskadiko Neguko txapelketan parte hartuko dute. Larunbata eta igandea. Iruñea, Nafarroan.
ABIADURA SARIA
Buruntzaldea IKTo igerilariak III. Abiadura Sarian lehiatuko dira. Larunbata. 17:00. Arizbatalde kirol., Zarautzen.
XAKEA
II. MAILA
Taula A - Astigarraga B Larunbata. 16:00. Blas de Lezo lokalean.
GAZTEEN TXAPELKETA
Gipuzkoako txapelketako jardunaldia jokatu da. Igandea. 10:00. Karmelo Balda pil., Donostian.

Eguzkiko gazteek, lehen postua helburu

Eguzki Bodegas Ayesa taldeak, hilaren 1ean, Lauburu KE Ibarra B taldea 4-1 garaitu eta pauso handia eman du. Lehen fasea amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, sailkapeneko lehen postuan da herriko taldea eta bertan mantentzen saiatuko da hurrengo asteetan

Txintxarri

Eguzki Areto Futbola klubeko taldeek ligako jardunaldi berria jokatu zuten otsailari hasiera emateko.

Hilaren lehen egunean, goizean, Maialen Chourraut kiroldegiko pistara hurbildu ziren herritarrek areto futbol neurketa polita ikusteko aukera izan zuten. Gazteen mailako Eguzki Bodegas Ayesa eta Lauburu KE B Ibarra taldeak aurrez aurre izan ziren. Azken jardunaldietan neurketarik galdu gabe aurkeztu ziren bi taldeak hitzordura.

Francisco Javier *Kixki* Perez Eguzki Bodegas Ayesa taldeko entrenatzaileak Lauburu KE B Ibarra B "ongi landutako talde indartsua" dela azaldu du. "Intentsitate handia jartzen du jokoan, estrategia handia dute, baloi geldiko jokaldietan ongi moldatzen dira. Aurkariak lan ederra egin behar du aurre hartzeko eta beraz, guretzat ber-



Eguzki Bodegas Ayesako jokalaria bat, erasoan. TXINTXARRI

tsiorik onena emate aukera izan zen", gehitu du.

Lehen zatian bi taldeen arteko borroka handia izan zen. Ibarretarrak aurreratu ziren markagailuan falta bati esker. Etxekoek ez zuten amore eman eta bost minutuetara berdinketako gola egin zuten. Bi taldeak saia-

tu arren, atsedendian banakoa zegoen markagailuan.

Bigarren zatian etxeko taldeak intentsitatea mantendu eta zati batzuetan handitu zuen. Sortutako gol aukerak ere ongi baliatu zituzten Eguzkiko gazteek eta hiru gol eginez, aldea ireki zuten.

Lauburu KE Ibarra Bk ez zuen esku hutsik itzuli nahi Ibarrara eta azken minutuetan atezain jokalaria atera zuen kantzara. Hori-beltzak defentsan sendo mantendu ziren eta aukariak ez zuen atean arriskurik sortzerik izan. Azken emaitza 4-1 izan zen.

Eguzkiko gazteen mailako prestatzailea pozarren dago bere kirolariak guztiek egindako lanarekin: "Lan ederra egin zuten eta nota onarekin, gainera".

Lehen postua

Garaipeneko postuei esker, bere multzoko lehen postuan da Eguzki Bodegas Ayesa taldea. Fase erregularra amaitzeko hiru jardunaldi falta dira eta postu horretan mantentzeko lan egingo dutela azaldu du prestatzaileak: "Taldeak irabazteko grina du eta dinamika horretan jarraitu nahi dugu. Orain helburua gertatzen diren bederatziko puntuak eskuratzea da".

Hurrengo hitzordua Mondrate CDren kontra izango du herriko taldeak: "Ez da partida erraza izango, baina azken partidatan erakutsitako mailarekin aurrea egingo dugula uste dut". Gainerako bi neurketak Goierrri KE eta Herrikide taldeen aurka izango ditu Eguzkik eta teoriarik garaitzeko "errazagoak" dira.

Helburua betez gero, lehen fasea multzoko aurreneko postuan amaitzea espero du Kixkik. Horrela ez bada ere, fase hone-

tako emaitzak eta jokoa aztertuta taldeak denboraldi hasierako xede bete duela onartu du. Dena delakoa ere, txapeldun fasea jokatuko dute.

Etxean sendo

Etxean jokatutako hitzorduetan indartsu agertu ziren Eguzkiko gainerako ordezkariek.

Gazteen mailako partida baino lehen, Eguzki Bar Escalerilla taldeko infantilek nagusitasunez Lauburu KE Ibarra 2011 garaitu zuten, 6-0.

Egun horretan bertan, arratsaldean, Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldeak Martutene KE izan zuen aurrez aurre eta ederki jokatuta 4-2 gailendu zen.

Hilaren 2an, goizean, kadeteen txanda izan zen. Aloña Mendiren aurka neurtu zituen indarrak Eguzki Goxokiz Goxuak taldeak eta infantilen antzera, 6-0 irabazi zuten.

Tolosa eta Ibarra aldean beselakoak izan ziren emaitzak. Ekin Oria taldearen aurka jokatu zuen Eguzki ISU Leihok-ek eta hori-beltzak ongi borrokatu arren, 2-1 gailendu zen talde tolosarra. Infantil mailan, Lauburu KE Ibarra beste ordezkaribatu izan zuen aurkari Eguzki Andatza tabernak, 2012 B taldea; ibarratarrek 6-4 irabazi zuten.

Emaitza horien ostean, kadete eta infantil mailako Eguzki Bar Escalerilla taldeak euren mailetako buru dira.

LOKEko gimnastak tapizera aterako dira Amateur txapelketan

Hilaren 8an, amateur mailako gimnastek Bergaran emango diote hasiera txapelketen denboraldiari

Txintxarri

Irailean hasi ziren lanean La-sarte-Oria Kirol Elkarte (LOKE) gimnastak eta hilabete hauetan guztietan txapelketa denboraldi berriko prestatetarako egin dituzte. Mailaren arabera, akrobazia berriak ikasi edo findu, tresnak erabiltzen ikasi edo trebatu, doinuak erabaki, ko-reografiak sortu eta ikasi... aha-lerin eskarga gauzatu dute eta iritsi da garaia euren lanak aurkezteko.

Otsailean zehar lehiaketa edo topaketa ezberdinetan parte hartuko dute gimnastika erri-

miko taldeko ordezkariek. Bakarka, bikoteka edo taldeka, amateur eta eskolarteko mailan lehiatuko dira LOKEko kideak.

Kategoria berriak

Lehenak tapizera ateratzen taldeko amateur mailako kideak izango dira (ikus koadroa). Bergarako Labegaraieta Udal Kiroldegian lehiatuko dute euren mailako lehen fasea hilaren 8an egun osoz.

Maite Rueda prestatzaileak azaldu duenez, jubenil mailako zein kadete B kategoriako ordezkariek aurten kategorial-



LOKEko taldeetako bat, erakustaldian. TXINTXARRI

daketa izan dute eta maila berrira moldatzeaz gain, aurreko urtean kategorial horretan lehiatu diren bakarkako edo taldeen aurka borrokatuko dira, beraz lan gogorra izango dute. Horrez gain, Senior A mailan Mirian Prietok ere lan ona egin dezakeela uste du.

Nahiz eta bestelako mailetan aurten araudi aldaketa urtea izan, amateur eta eskolarrek beste denboraldi batez araudi zaharrarekin lanean jarraituko dutela azaldu du entrenatzaileak. Hori aldeko izan dezaketela uste du: "Iaz Olinpiar Jokoak jokatu ziren eta horren ostean,

Gimnastak

- **Bakarkakoak/bikoteak**
Master maila - Paula Martinez
Senior A maila - Mirian Prieto
Jubenil A maila
- Saioa Boyero eta Noa del Amo
- Maitane Sarmiento
- **Taldeak**
Jubenil A - LOKE
Kadete B - LOKE
Kadete C - LOKE

araudi aldaketa izan ohi da. Gainerako mailetan aldaketa hori emango da, baina aurten amateur eta eskolarretan 2024 urtean indarrean zegoena mantenduko da".

Tapizen lehiatu arte ezin jakin, ordea; guztia emateko prest dauen LOKEko ordezkariek.

Igerilariak, bikain Gipuzkoako txapelketan

Buruntzaldea IKTko kideak zein Bidasoa XXI taldeko Iñaki Garcia herritarra junior eta absolutu mailako Gipuzkoako Neguko txapelketako hainbat probatan podiumean izan dira bakarka zein taldean. Gipuzkoako Neguko Sarian ere fin ibili da Laida Guerrero

Txintxarri

Herriko igerilariak hitzordu bikoitza izan zuten hilaren lehen asteburuan. Infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako Neguko txapelketa zein Neguko Saria lehiatu zituzten eta emaitza ederrak lortu zituzten.

Buruntzaldea IKTko hamabost bat igerilarik zein Bidasoa XXI taldeko Iñaki Garcia herritarrek Bergaran jokatu zen lurraldeko lehiaketan parte hartu zuten. Maila ezberdinetan lehen postuetan izan ziren Lasarte-Oriako ordezkariak eta horietako batzuk euren jardunarengatik podiumera igo ziren bakarkako zein taldekako hainbat probetan (ikus ondoko koadroa).

Bakarkako lehiak, nabarmen-tzeko modukoak dira absolutu mailan Bidasoa XXI taldeko kide den Iñaki Garcia (100 m. bular) eta Buruntzaldea IKTko Iker Gorostegui (400 m. estilo) eskuratutako urrezko dominak



Buruntzaldea IKTko kideak, Ligako jardunaldi bateko irudian. BURUNTZALDEA IKT

eta Buruntzaldea IKTko kide Garazi Etxeberriaren bigarren postua, 100 m. estilo proban.

FINA puntuetako podiumean ere izan zen herritarrik, Garcia eskuratutako emaitzengatik junior mailako brontzea jantzi zuen.

Errelebo probetan ere fin izan ziren Buruntzaldea IKTko kideak eta lau probatan podiumeko postuetan izan ziren. Aipatzekoa da 4x100 m. estilo lasterketan eskuratutako garaipena.

Nahiz eta emaitza ederrak izan, Buruntzaldea IKT ezin izan zen

Neguko txapelketako podiumak

Iñaki Garcia (Bidasoa XXI)

- Fina puntuaketa - 3º junior
- 100 m. bular - 1º absolutu eta junior
- 100 m. libre - 2º junior
- 200 m. libre - 3º junior

Oihan Matute

- 100 m. estilo - 3º junior
- 400 m. estilo - 3º junior

Iker Gorostegui

- 400 m. estilo - 1º absolutu
- 100 m. estilo - 3º absolutu
- 200 m. tximeleta - 3º absolutu

Garazi Etxeberria

- 100 m. estilo - 2º absolutu
- 50 m. bular - 3º absolutu

Miren Sarobe

- 50 m. tximeleta - 2º junior
- 200 m. libre - 3º junior

Mario Amantegi

- 800 m. libre - 3º junior

Erreleboak

- 4x100 m. estilo - 1º mutilak
- 4x50 m. libre mistoa - 2º
- 4x200 m. libre - 2º mutilak eta 3º neskak

taldeen sailkapen orokorrean podiumera igo; bosgarren izan zen. Mutilek ere bosgarren postuan amaitu zuten lehia eta neskek, aldiz, zazpigarren. Garcia kide duen Bidasoa XXI, aldiz, garaile izan zen hiru sailkapenetan.

Guerrero ere, podiumean

Gipuzkoako Neguko Saria, aldiz, Allurralde kiroldegian lehiatu zen eta bertan Buruntzaldea IKTko Laida Guerrerok podiumera igotzea lortu zuen.

Infantil mailako 200 m. libre proban, jantzi zuen zilarrezko domina igeriketa taldeko kideak. Gainera 03.12.19 eginda bere marka pertsonala ere ondu zuen Guerrerok.

Estilo libreko 50 m. saioan ere parte hartu zuen Buruntzaldea IKTko ordezkariak, baina 39,57 eginda ez zuen bere marka gaitzterik izan.

Buruntzaldea IKTk antolatutako proba izan zen hori eta klubak eskerrak eman nahi dizkie bertan izan ziren laguntzaileei.

Lehiak lehia

Eta herriko ordezkariak ez dute atsedetik izango. Hilaren 8an eta 9an ere, Lasarte-Oriako igerilariak bi txapelketa ezberdinetan izango dira lehiak: Euskadiko txapelketa, Iruñean (Nafarroa); eta Abiadura Saria, Zarautzen.

Ohorezko mailako jubencil eta kadetea, jaitsiera saihestu nahian

Ostadar SKTko taldeek txanponaren bi aldeak bizi izan dituzte jaitsierako hirugarren jardunaldian

Txintxarri

Lasarte-Oriako futbol taldeak fase ezberdinetan ari dira lehiak. Ostadarreko Ohorezko kadete zein jubencil mailako taldeak, esate baterako, jaitsiera saihesteko lehiak ari dira. Faseko hirugarren jardunaldian irabazi egin du batek eta galdu egin du besteak.

Talde urdin-beltzeko Ohorezko Kadete Mailako taldeak ez du neurketarik galdu. Azken aurkaria Tolosa CF B izan zen, Michelin kirol gunean eta urdin-beltzak 2-0 nagusitu ziren.

Ederki borrokatu ziren bi taldeak eta Ostadarrek ongi baliatu zituen bi aukera, bata lehen zatian eta bestea bigarren, aldeko emaitza eta hiru puntuak eskuratzeko.

Bestelako egoera bizitzen ari da Ohorezko jubencil taldea; hiru neurketetatik bat berdindu eta bi galdu ditu. Lengokoaren aurka neurtu zituen indarrak hila-ren leian. Neurketa borrokatua izan arren, azken bost minutuetan donostiarrek gola egin eta garaipen puntuak eskuratu zituzten.



Ostadarreko ohorezko kadete jokalarik bat, baloiarekin ihesi joan nahian. TXINTXARRI

Emaitza horiei esker, multzo lehen postuan da kadete mailako ordezkaria eta lehen postuetan mantenduz gero, hurrengo denboraldia ere Ohorezko Kadete Mailan jokatuko du. Jubenilek, ordea, postu batzuk

igo beharko dituzte kategorian ez galtzeko; zortziko multzoan zazpigarren dago taldea. Bi mailetan, multzo bakoitzeko azken hiru taldeak Gorengo mailan jokatuko dute hurrengo denboraldia.

Kopa eta igoera

Bestalde, I. Erregional zein I. Jubencil mailako Ostadar SKT zein Texas Lasartearra CFk igoera, kopa zein Udaberri kopa lehiaketetako lehen hitzordua jokatu zuten; denetarik emaitzak izan ziren.

Erregional mailan, talde urdin-beltzeko ordezkariak 2-0 garaitu zuten Vasconia; zuri-urdinek, aldiz, ezin izan zuten Irauli bosteko gaitzterik izan.

Jubencil mailari dagokionean, igoera jokoan duen Texas Lasartearra B eta Udaberri kopa lehiatzen ari den Ostadar SKT C taldeek puntu bat eskuratu zuten Danena KEren ordezkarien aurka; lehenek bana eta urdin-beltzek hiruna berdindu zuten. Kopan dagoen talde zuri-urdinak, aldiz, 2-5 galdu zuen Euskaldunaren aurka.

Korrikalariak, pistan zein mendian bikain lehian

Master mailako zein absolutu mailako 3.000 metroko Euskadiko txapelketa edo Negu trail proba. Hilaren lehen asteburuan ere, herriko ordezkariak lehian izan dira eta hala nola, Mari Carmen Olaso herritarra podiumera igo da master mailako lehiaketan

Txintxarri

Herriko atletak pista denboraldiko txapelketatik txapelketara dabiltza azken asteetan.

Hilaren 2an, Euskadiko Master txapelketa lehiatu zen eta horrekin batera, absolutu mailako 3.000 metroko lasterketa ere jokoan izan zen. Mari Carmen Olaso eta Aloña Mendi taldeko Jon Presa izan ziren lehian maila ezberdinetako iraupen luzeko proban, eta lehenak podiumeko gorenera igotzea lortu zuen.

Master mailako lehiari Mari Carmen Olaso izan zen azkarrena 3.000 metroak egiten. Herritarrek 13.07,11 marka egin zuen helmugan.

Absolutu mailako proban Jon Presa herritarra izan zen lehian. Herritarra bere marka onenetik gertu geratu zen helmugan 08.47,44 eginez.

Mendian lasterka

Pista utzi eta mendira joz, egun berean, Negu Trail lasterketako



Olaso, podiumean. M.C.OLASO

edizio berria lehiatu zen Berastegin.

Parte hartzaileen artean, Lasarte-Oriako edo herriko taldeetako ordezkariak izan ziren.

Lasarte-Oria Trail Mendi elkarte (LOTME) kide Xabier

Aizpuruk 01.44,54 egin zuen, eta, Jorge Saldaño herritarrek, 02.19,48.

Hurrengo lehiak

Hilabeteko bigarren asteburuan ere hitzordu ugari izango dituzte atleta eta lasterkariak.

Hilaren 8an, adin txikiko zein master mailako jaurtiketa luzeetako Euskadiko txapelketa lehiatuko dute, Durangon.

Donostian, berriz, 18 eta 20 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketa parte hartuko dute. Bi jardunaldik osatzen dute txapelketa: bata, hilaren 8an, arratsaldean; eta bestea, 9an, goizean. Proba libreteko jardunaldia ere izango da.

Hilaren 9an, gainera, 94. Uliako Gimnastika proba jokatu da. Maila ezberdinetako -40 minutu baino gutxiagoko proba, herrikoia eta infantila- zein distantzia (10 km. eta 5 km.) ezberdinetako lasterketak antolatuko dira.

Beñat Carbayeda herritarra Essor Basque proban lehian da

Caja Rural Alea taldeko kideak sariko bi jardunalditan parte hartu du eta beste bitan ere lehiatuko da

Txintxarri

Pelotoia errepidean martxan da. Beñat Carbayeda herritarrek eta Caja Rural Alea taldeak Essor Basque proba lehiatzen eman dio hasiera denboraldiari. Ipar Euskal Herrian antolatzen den proba otsaileko lehen bi asteburutan jokatu da eta bost jardunaldik osatzen dute.

Hilaren 1ean eta 2an, Euskal Herriko zein Frantziako taldeetako txirrindulariek Boucle de L'Essor eta Circuit de L'Essor lasterketak borrokatzeko batu ziren.



Probako pelotoia. CAJA RURAL ALEA

Lehen lasterketa Bokale eta Tarnos arteko 115 kilometrota-

ko ibilbidea izan zen; herritarra garaitetik ia bost minutura iritsi zen helmugara.

Bigarren egunean, aldiz, Kanbon hasi eta amaitzen zen 110 kilometrotako zirkuitua egin zuten txirrindulariek. Azken metroetan pelotoiko buruan borroka handia izan zen garapena eskuratzeko. Nahiz eta talde nagusian iritsi helmugara, Carbayedak ezin izan zuen borrokan sartu.

Hilaren 7tik 9ra Donapaleu, Donibane Garazi eta Maule aldean jokatu dira Essor Basque probako gainerako hiru jardunaldiak: Tour de Basse Navarre, Ronde du Pays Basque eta Trophee de L'Essor. Carbayeda herritarra lehen eta hirugarren probetan lehian izango dela jakitera eman du Nafarroako taldeak.

Atsokabar kirol guneko kontuetan, gardentasun eza

Elkarrekin Podemosek kirol guneko gastuak handitu eta udalak azalpen argirik ematen ez duela salatu du

Txintxarri

Lasarte-Oriako Elkarrekin Podemosek Atsokabar kirol gunearen kostuaren gardentasun falta eta finantzaketan garbitasunik ez dagoela salatu du ohar bidez. Udaltaldeak kritikatu du aurrekontuak etengabe gora egin duela eta bizilagunentzako informazio argirik ez dagoela proiektuaren gastuei buruz, "proiektuak aurrekontu igoera etengabea izan du, herritarrei azalpen argirik edo txosten zehatzik eman gabe".

Taldeak gogora ekartzen duenez, herritarren eta kirol elkarten adostasuna izan zuen prozesu parte hartzaile baten ondoren, 2017an, Lasarte-Oriako Udalak aldizkari ofizialean iragarri zuen 1.270.000 euroko kostua izango zuela kirol pista berriak eraikitzeko. Lanak aurrera egin ahala, zenbakiak modu kezagarrian aldatzen hasi zirela nabarmendu du Elkarrekin Podemosek eta gobernu taldeak duela gutxi argitaratu duenez, kostua 7.200.000 eurokoa izan da guztira. Baina udal taldeak jakitera eman duenez, "oraindik ez dira proiektuaren azken kontuak aurkeztu eta har-mailak eta ekipamendua falta dira, eta horrek agerian uzten du be-

netako kostua zortzi milioi eurotik gorakoa izan daitekeela".

Miguel Angel Tolosa Lasarte-Oriako Elkarrekin Podemoseko bozeramailea oso kritiko agertu da gobernu taldeak emandako informazio faltarekin: "Proiektuaren hasieratik, Lasarte-Oriako bizilagunek ez dute aurrekontuaren igoerei buruzko informazio zehatza eskuratu, ezta horiek justifikatzen dituzten arrazoiak ere. Onartezina da inauguraziora arte itxaron izana konplexuaren benetako kostua hasieran iragarritakoa baino askoz handiagoa izan dela erakusteko".

Gainera, Elkarrekin Podemosek salatu duenez, inbertsio handia egin den arren, ez da instalazioen mantentze lanen kostuei buruzko kalkulurik aurkeztu, eta horrek ezusteko ekonomiko berriak ekar ditzake etorkizunerako. "Gainera, inbertsio handia izan arren, konplexuak espazio eta instalazioen aldi bereko erabilera arazoak ditu oraindik, eta horrek tokiko klub eta kirolariei eragiten die".

Herritarrek azalpenak izan eta etorkizunean opakutasun egoerak ez errepikatzea bermatzeko, udal taldeak proiektuaren azken kontuak lehenbailehen aurkezteko eskatu dio gobernu taldeari.



OSTADAR IPAR MARTXA

Debatik Ondarroara bidea

Azken asteetan egin duen euriagatik, entrenamendu saio batzuk bertan behera utzi behar izan ditu Ostadar Ipar Martxako taldeak. Urtarrilaren 25ean egin beharreko irteera ere atzeratu behar izan zuten kideek eta hilaren 2an aurrera eraman zuten ekimena. Giro ederrean, Deba eta Ondarroa arteko ibilbidea egin zuten irteeran parte hartu zuten kideek. Bestalde, hilaren 15ean bigarren hastapen ikastaroa eskainiko du Ostadar Ipar Martxa taldeak eta 16an, Aspanogik antolatzen duen ibilaldian parte hartuko du kirol taldeak.

ESKELA

ESKELA

Juan Luis Eizmendi Arsuaga

—Goian bego—

2025eko otsailaren 4an hil zen, 54 urte zituela.

Santa Agedako taupadekin beti gogoan izango zaitugu. Eskerrik asko zure eskuzabaltasun eta lan guztiagatik.

LANDABERRI ETA ORIARTEKO GURASO ELKARTEAK

Lasarte-Orian, 2025eko otsailaren 7an.



ESKELA

Juan Luis Eizmendi Arsuaga

—Goian bego—

2025eko otsailaren 4an hil zen, 54 urte zituela.

Mila esker, Juan Luis eman diguzun guztiagatik. Besarkada handi bat familiari



TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Lasarte-Orian, 2025eko otsailaren 7an.



GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 7	LASA	Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00 DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08 KNEISE: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21
LARUNBATA, 8	KNEISE	
IGANDEA, 9	KNEISE	
ASTELEHENA, 10	GIL	
ASTEARTEA, 11	ACHA ORBEA	
ASTEAZKENA, 12	KNEISE	
OSTEGUNA, 13	LASA	

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Etxebeste Farmazia: Elkano kalea 9 behea, Hernani. 943-55 20 87

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

ZORION AGURRAK



Unax
Zorionak Unax familiaren partetik! Ze ondo ospatu genuen zure zortzigarren urtebetetzea! Jarraitu zaren bezalakoa izaten! Muxu handi bat!



Joanes
Zorionak gure etxeko txikienari eta zalantzik gabe, bihurrienari!! Ze nolako poztasuna zu handitzen ikustea! Ikaragarria zara maitia, zure bizitasunak gure egunak bete eta pozten ditu. Eskerrik asko poxolito! Marrubizko 4 muxu!



Nora
Zorionak Nora!!!! Oso ondo pasa zure urtebetze eguna. 16 muxu handi, asko maite zaitugu!



Mari Karmen
Zorionak presi! Entzun dugu sagardotegi ugari dituzula zure urtebetetzea ondo ospatzeko. Beraz txootxerionak Ttakunek lantaldearen partetik!



Lorea
Zorionak Lorea! Bulegoko artaldera beeenetako artzaia etorri zaigu, beeeeharra baguen! Beeeehintzat ardiak gobeernatzen ohituta zaude! Beeeero beeeero ospatu eguna, beeeelarririk tirako dizugu astelehenean!

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Trastelekua saltzen dut, 20 m2., sotoa da, Sasotetan. 4.000 euro. Harremanetarako zenbakia: 644 90 21 09.

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

EROSI
Garaje bat erosiko nuke herri erdigunean irekia edo ibxia. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ERRENTAN HARTU
Etxe bat alokatu nahiko nuke. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Apartamentu txiki bat alokatu nahi dut, epe luzerako. Goizez deitu: 687 05 82 12.

ERRENTAN EMAN
Apartamentu bat alokatzen dut Landetan (Vieux-Boucau). Urte guztirako edo udan zein Aste Santuan: 688 66 79 82.

LANA

ESKARIA
Interna gisa lan ugari egiteko prest nago, besteak beste, adineko pertsonak zaintzeko. Harremanetarako, 613 95 31 26.

Batxilergoko Bigarren mailako ikaslea naiz eta edozein irakasgaietako klase partikularrak emateko prest nago. Harremanetarako, 678 17 15 99.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA
2. Batxilergoko ikasle bati Matematika laguntzeko eskola partikularrak emateko norbait behar da. Interesa dutenek deitu zenbaki honetara: 660 89 48 14 (Mari Karmen).

12 urteko neska bati zatikiak edo saio partikularrak emateko norbait behar dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

SALEROSKETA

Helduentzako trizikloa saltzen dut. Interesdunek 630 85 57 96 telefono zenbakira dei dezatela.

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Karreterako bizikleta, BMC SLR03 Beltza eta ondo zainduta. 607 49 16 63 (Aritz).

125 c.c-ko motorra, Piaggio Liberty beltza. 2013 urtean matrikulatuta eta 21.000 km. 616 43 47 65 (Joxe).

Opel Antara 150cv salgai. 2008. urtekoa. Gris koloreko larruzko eser-

leku berogarriekin. Funzio anitzeko txartela. Nabigatzailea pantailan eta esku librekoa. Aleazio-hagunak. Hurbiltasun-sentsorea. Aire girotua. Likidoen aldaketak eginda. Balazta-pastilla eginak. % 80ko estalkiak. Autoa oso ondo dabil eta oso zabala da. 7.000 euro. 672 41 67 61.

Kawasaki Z900 saltzen dut, 2018. urtekoa, 17.504km-rekin. Estrak ditu, SC ihes-hodia, balazta-heldulekuak, erorketen aurkako gomak, direkzio-esekidura eta martxoko estalkiak. Dauzkadan serieko gauza guztiak motorrekin batera entregatuko ditut. 6.000 euro. 606 59 90 64.

BMW X5 4.4.I saltzen dut. 2001. urtekoa. 4000 euro. 606599064

Atal honetako iragarkiak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaituz gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez eta Maddi Zaldua.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak:
Xuban Urdalleta, Nikola Iraola, Nora Navarro, Aimar Hernandez, Gari Iraola eta Iñigo Ibarburu.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 7

LASARTE-ORIA Zineforuma
Okendo Zinema Taldeak Euskal Dokumentalen Zikloa aurrera eramango du, eta horren barruan, *Indarkeriaren oihartzunak* proiektatuko du. Kultur etxeko auditorioan izango da, eta sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 8

LASARTE-ORIA Janari bilketa
Saharako herritarren aldeko janaria bilduko dute Eroski eta BM Loidibarren supermerkatuetan.
Eroski eta BM Loidibarren 10:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Bilera
Sorgin Jaiak-ek bilera ireki bat egingo du bertaraten direnei bere lanaren eta antolatzeke moduaren berri emateko. Iragarri dute saioaren ostean hamaiketako jarriko dutela.
Antonio Mercero gunea 12:30ean.

LASARTE-ORIA Antzerkia
Gorakada antzerki konpainiak *Moko* obra erakutsiko du. Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan izango da, eta sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxean, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Musika
Alboka abesbatzak kontzertu bat emango du Biarritzetik etorriko den Itsasoa abesbatzarekin batera. Sarrera, doan. Herriko taldeak ekingo dio emanaldiari hiru abestirekin. Ondoren, Lapurditik etorritako koruak bere errepertorioa eskainiko du eta kontzertua biek batera amaituko dute.
San Pedro parrokia, 19:45ean.

IGANDEA 9

LASARTE-ORIA Zinema
Haurrentzako *Dalia y el libro rojo* proiektatuko dute. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da, eta sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.



LASARTE-ORIA Janari bilketa
Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeko ordezkariak oharatarazi dute sahar errefuxiatuen kanpalekuan hilabeteak daramatzatela janari eskasiarekin, eta egoera hori irauli eta elkartasuna adierazteko janari bilketa deitu du.
Eroski eta BM Loidibarren, 10:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Zinema
Helduentzako *Heretic* proiektatuko dute. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da, eta sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 10

LASARTE-ORIA Erakusketa
XVII. Itsaspeko Zinema Zikloaren barruan, argazki erakusketa aurrera eramango dute. Kultur etxeko kafetegian izango da, eta, sarrera doakoa da. Hilaren 26ra arte izango dute interesdunek hori bisitatzeko aukera.
Kultur etxeko kafetegia, 17:00etatik 21:00etara.

LASARTE-ORIA Ikus-entzunezkoa
XVII. Itsaspeko Zinema Zikloaren barruan lehen ikus-entzunezkoaren emanaldia aurrera eramango dute. Kultur etxeko auditorioan izango da, eta sarrera, doakoa.
Kultur etxea, 19:00etan.

ASTEARTEA 11

LASARTE-ORIA Egitasmoa
Enrédate egitasmoaren aurreneko saioa aurrera eramango dute.

Helburuak da adineko pertsonen sozializazioa eta ongizatea sustatzea. Informazio saio eta ariketa praktiko bana egingo dute eta ondoren hamaiketako jango dute, aire frijigailu batean egindako sagar txipak. Parte hartu nahi dutenek 943-10 30 22 telefono zenbakira deitu, 647 37 15 26 zenbakira WhatsApp mezu bat bidali edo manuel.decabo@cruzroja.es helbide elektronikora idatzi.
Gurutze Gorriaren egoitza (Adarra kalea, 1), 10:30etik aurrera.

ASTEAZKENA 12

LASARTE-ORIA Aurkezpena
Euskaraldiaren 4. aldia aurrera eramango da udaberriari, eta horren berri emateko aurkezpena agerraldia egingo du Lasarte-Oriako Euskaraldiaren Koordinazio Guneak. Herritarrak bertaratzera deitu dituzte.
Udaletxeko multimedia gela, 15:30ean.

LASARTE-ORIA Opera
Londresko Royal Ballet-en *La cenicienta* obra ikusteko aukera izango dute opera eta balet zaleek. Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan izango da emanaldia,

eta sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute.
Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 14

LASARTE-ORIA Zineforuma
Okendo Zinema Taldeak Euskal Dokumentalen Zikloaren barruan, lau film labor proiektatuko ditu: Telmo Iruretaren *De arena y agua*; Ekain Irigoienaren *Europa 7*; Nagore Ezeizaren *Zona Wao*; eta, Kote Camachoren *Puzzleak*. Kultur etxeko auditorioan izango da, eta sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxean, 20:00etan.

IGANDEA 16

LASARTE-ORIA Zinema
Haurrentzako *Los exploradores* proiektatuko dute. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da, eta sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Helduentzako *Babygirl* proiektatuko dute. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da, eta sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 17

LASARTE-ORIA Ikus-entzunezkoa
XVII. Itsaspeko Zinema Zikloaren barruan bigarren ikus-entzunezkoaren emanaldia aurrera eramango dute. Kultur etxeko auditorioan izango da, eta sarrera, doakoa.
Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 21

LASARTE-ORIA Zineforuma
Okendo Zinema Taldeak Euskal Dokumentalen Zikloa aurrera eramango du, eta horren barruan, *Zinzindurrunkarratz* proiektatuko du. Kultur etxeko auditorioan izango da, eta sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxean, 20:00etan.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Antzerkia
La Dramatica Errante-k *Ni flores, ni funeral, ni cenizas, ni tantan* obra

oholtzaratuko du. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da, eta sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxean, 20:00etan.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Zinema
Haurrentzako *Finnick, un monstruo en cada casa* proiektatuko dute. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da, eta sarrerek 4 euro balio dute.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema
Helduentzako *Conclave* proiektatuko dute. Manuel Lekuona Kultur Etxean izango da, eta sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 24

LASARTE-ORIA Ikus-entzunezkoa
XVII. Itsaspeko Zinema Zikloaren barruan hirugarren emanaldia aurrera eramango dute. Kultur etxeko auditorioan izango da; sarrera, doakoa da.
Kultur etxea, 19:00etan.

OSTEGUNA 27

LASARTE-ORIA Musika
Udal Musika Eskolak Inauterietako kontzertu bufoa aurrera eramango du. Kultur etxeko auditorioan izango da, eta sarrera doakoa da.
Kultur etxea, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea
Saharar Errepublikari Demokratikoaren 49. urteurrena izango da egun horretan, eta hori aitzakiatzat hartuta, elkarretaratzea deitu du Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria eragileak. Herritarrak bertara daitezzen dei egun du.
Okendo plaza, 19:30ean.

OSTIRALA 28

LASARTE-ORIA Zineforuma
Okendo Zinema Taldeak Euskal Dokumentalen Zikloa aurrera eramango du, eta horren barruan, larraitz Zuazo, Zuri Goikoetxea eta Ainhoa Andrakaren *Itoitz* proiektatuko du. Kultur etxeko auditorioan, izango da eta sarrerek 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

Eskerrik asko, Juan Luis

Mari Karmen Ormazabal

Ttakuneko sorreratik euskaren, herrigintzaren eta euskal kulturaren alde lanean ibili zinen. Jaiak lantaldeko partaidea, zuzendaritzako kide, Euskararen Maratoiko otordu ugariaren arduradun...

Kalea Maixuko lantaldean urte askoz, euskararen erabilera sustatzeko lanean. Goiegin ospakizun ugari egin genituen, eta beti harrerarik onena jaso izan genuen. Santa Ana parodiako aktore eta partaideentzat hainbat afari sukaldatu izan zenituen, herriko elkarteetako sukalde ezberdinetan.

Hau guztia Erketzeko txistularia izatearekin batera uztartzen zenuen. Guraso izateko garaia iritsi zitzaizun, eta ordun hezkuntzan zentratu zinen, ikastolako guraso elkarteko kide izanez.

Bergarako idazle eskolan hasi eta gero parodiako gidoia idaztera ere iritsi zinen azken urteetan.

San Tomasetan ere gaztainak erretzen aritu zinen, gaztez inguratuta. Azken boladan, herrigintzarekin kezkatuta, lanketa horretan genbiltzan.

Beti borondate onez, egiteko prest, umoretsu, irribarretsu.



Euskararen 7. Maratoiko otorduetako batean, paella goxoa banatzen. TXINTXARRI



10. Maratoialdiko gosari tertulian. TXINTXARRI



Hezkuntza arloan ere, lanean. TXINTXARRI

Juan Luis Eizmendi Arsuaga hil da

Lasarte-Oriako herrigintzako eragile sutsu bat galdu berri dugu: Juan Luis Eizmendi Arsuaga. Atzo hil zen, 54 urterekin. Gaur (hilak 7) egingo dute haren omenezko hileta, San Pedro parrokian, 19:30ean.

Hezkuntzan, euskaigintzan, sukaldeko su artean... Perrexila bezala, saltsa askotan izan zen Juan Luis Eizmendi Arsuaga. Lasarteoriatar asko eta askorentzat oso kuttuna izan zen Goiegi jatetxeko sukaldari buru izan zen hamar urte baino gehiagoz, eta, bertan bazkaldu eta afaldu zutenen sabelak ez ezik bihotzak ere bete zizkien bere lanerako grinarekin eta adeitasunarekin.

Azken urteetan beste zeregin batzuetan ikusi izan dugu, hala nola, Landaberri nahiz Oriarte guraso elkarteetan lanean eta eragiten, Santa Ana parodiako gidoigileen lantaldean, Lasarte-Oriako Irakurle Txokoan, Bergarako Idazle Eskolako kide gisa ilunabar literarioak aurrera eramaten Ttakunenea elkartearen, eta baita Ttakun Kultur Elkartearen bulegoan edota TXINTXARRI aldizkariaren erredakzioan, denetarik antolatzeko eta egiteko prest.

Eskerrik asko, Juan Luis. Lurra goxo har zaitzala.

2025EKO MAIATZAREN 15ETIK 25ERA



Zatoz aurkezpen ekitaldira

Asteazkena, otsailaren 12an 15:30ean
Udaletxeko multimedia gelan



Eman izena
aurkezpenara
joateko
labur.eus/aurkezpenalasartheoria

